



IKER
GAZTE
NAZIOARTEKO
IKERKETA EUSKARAZ

IV. IKERGAZTE NAZIOARTEKO IKERKETA EUSKARAZ

2021eko ekainaren 9, 10 eta 11a
Gasteiz, Euskal Herria

ANTOLATZAILEA:
Udako Euskal Unibertsitatea (UEU)

OSASUN ZIENTZIAK

**Erizaintza euskaraz: jarduteko
edota ikasteko aukera eta
oztopoen azterketa**

*Garbiñe Elizegi, Izaskun Elezgarai
eta Naroa Anabitarte*

219-226 or.

<https://dx.doi.org/10.26876/ikergazte.iv.04.27>



Erizaintza euskaraz: jarduteko edota ikasteko aukera eta oztopoen azterketa

Elizegi, G., Elezgarai, I., Anabitarte, N.
UEU/EHU
garbilekaroz@gmail.com

Laburpena

Euskal Herrian erizainek hainbat oztupo topatzen dituzte egunerokoan jarduera euskaraz egiteko. Ikerketa lan honek Euskal Herriko lurralde desberdinetan erizaintza euskaraz ikasteko eta jarduteko dauden hutsuneak eta aukerak aztertzea du helburu. Elkarrizketa sakonaren teknika erabiliz sei erizain elkarrizketatu dira, egoeraren diagnosis egin eta oztupo nagusiak identifikatzeko. Aldi berean, etorkizunera begira dauden aukerak identifikatu eta neurriak proposatzeko baliatu da. Elkarrizketatuek euskaraz jarduteko zailtasunen artean hizkuntza zapalkuntzaren ondorioz sortutako botere harremanak, kontzientzia eskasa eta kultura gaitasunaren formakuntza falta nabarmendu dituzte. Etorkizunera begira berriz norabide bateratu baten gabezia nabarmentzen da.

Hitz gakoak: erizaintza, euskara, kultura gaitasuna, kontzientzia, botere harremana

Abstract

Nurses in the Basque Country encounter several obstacles to practice nursing in Basque on a daily basis. The purpose of this research study is to evaluate the gaps and opportunities to study and practice in Basque in different regions. Six nurses were interviewed using an in-depth interview technique to identify the underlying obstacles and diagnosis of the situation. The opportunity was also taken to identify and propose future measures and options. Among the difficulties in practicing in Basque the interviewed emphasized the power relations arising from language oppression, poor awareness, and lack of training in cultural competence. Regarding proposed measures for the future the lack of a united direction becomes apparent.

Keywords: nursing, basque, cultural competence, awareness, power relations

1. Sarrera eta motibazioa

Euskal Herrian, oro har erizainek, beste hainbat profesionalek bezala, hainbat oztupo topatzen dituzte egunerokoan jarduera euskaraz aurrera eramanez ahal izateko. Gabezi ugari daude egunerokoan pazienteen zein langileen hizkuntza eskubideak bermatzeko. Hizkuntz komunitate gisa, Euskal Herri osoan, euskaldun guztiok osasun sistema publikoan euskaraz artatuak izateko eskubidea bermatua egotea dugu helburu. Administrazio zein egoera soziolinguistiko desberdinak kontutan hartu behar ditugun arren, lurralde osorako estrategia bateratua garatzea ezinbestekoa da helburu hau lortzeko.

Bide horretan, erizaintzari dagokionez unibertsitateko ikasketak herrialde guztietan euskaraz burutu ahal izatea aurrerapauso garrantzitsua izango litzateke. Eskaintza aktiboa eskainiko duten eragile aktiboak izango diren langileak sortuz. Erizainek beren jarduera osoa euskaraz gauzatu ahal izateak, osasun sisteman langile kopuru gehien duen lanbidea delako eta pazienteekin denbora gehien pasatzen duten profesionalak direlako, jauzi kualitatibo zein kuantitatibo nabarmena ekarriko luke osasungintzan helburu den euskararen normalizazioan.

Ildo honetatik, ikerketa lan honek Euskal Herriko lurralde desberdinetan erizaintza euskaraz ikasteko eta jarduteko dauden hutsuneak eta aukerak aztertzea du helburu. Lana burutzeko herrialde ezberdinetako sei erizain elkarrizketatu dira, beren praktika eta bizipenak kontuan harturik, egoeraren diagnosis egin eta arazo edo oztupo nagusiak identifikatzeko. Aldi berean, etorkizunera begira dauden aukerak identifikatu eta neurriak proposatzeko bidea du xede.

Euskarak osasungintzan bizi duen egoera aldatzen da Euskal Herriko eremu administratibo, lurralde, zein zonaldearen arabera. Beste hainbat arloetan bezala, banaketa administratiboak, egoera soziolinguistikoak, eskumen mugatuak eta egoera historiko politikoak osasungintzan ematen den euskararen erabilera ere baldintzatzen du.

Hizkuntzak, kulturaren ardatz garrantzitsua den heinean, herritarren inguruaren ikuskera definitzen du. Euskaldunon kasuan, hizkuntza gure kulturaren oinarria dela esan dezakegu. Lan honetan aztertuko dugu erizaintzaren kasuan zenbateko garrantzia duen osasun langileek duten kultura gaitasuna edo beharbada kultura gaitasun eza.

Osasun sisteman kultura gaitasunak sistemak sinesmen, ohitura eta jarrera desberdinak dituzten herritarrek artatzeko gaitasuna deskribatzen du, herritarren behar sozial, kultural eta linguistikoak betetzeko ahalmena barne. Kultura gaitasuna biztanleria osoarentzat kalitatezko arretarako irisgarritasuna hobetzeko tresna eraginkorra da (Betancourt et al., 2002).

Kultura gaitasuna lortzeko, osasun langileei ohartarazi behar zaie faktore sozialak zein kulturalak duten garrantzia osasunaren inguruko sinesmen zein jarreretan, formakuntza eta hezkuntzaren bitartez tresna eta baliabideak eman behar zaizkie faktore hauek modu egokian kudeatzeko, eta beren pazienteak ahalduz lagundu behar dituzte paziente eta osasun langileen arteko harremanean jarrera aktiboa har dezaten (Betancourt et al., 2002).

Euskal Herri mailan egin diren azterketen ondorioetan ere kultura gaitasuna eta hizkuntzaren kontzientziaren garrantzia azpimarratu dira behin eta berriz. Osasungintzan euskararen erabilera bultzatzeak, zerbitzuaren kalitatean eragiten du, kalitatea hizkuntzarekin lotuta dagoelako (Montes, 2016).

Zerbitzua bakoitzaren ohiko edo jatorrizko hizkuntzan ez emateak pazienteen arteko desberdintasuna sortzen du. Norberaren beharrak komunikatzeko zailtasunek ezinegona eta etsipena eragiten du, bai pazienteengan zein osasun langileengan (Montes, 2016).

Hizkuntza kontzientzia, berriz, hizkuntzaren ezaugarriez eta pertsonen bizitzan duen garrantziaz ohartzea, eta ezagutzan oinarrituriko gaiarekiko kontzientzia sendoa eskuratzea da (Montes, 2016).

Gaitasun kulturala zein hizkuntza kontzientzia bezalako kontzeptuak, mundu mailan hainbat osasun sistematan txertatzeko prozesuan abian diren arren, Euskal Herrian ia ezezagunak diren praktikak dira. Osasun langileen formakuntzatik kanpo gelditzen dira eta hainbat langileek zalantzan jartzen dute honen beharra dagoenik ere.

Erizaintzak pisu garrantzitsua izan dezake bide honetan, kontzeptu eta formakuntza ereduak gurera egokituz, eta eredu propioa sortuz. Aipatzekoa da Aotearoan erizainek bultzatutako ekimenez kultura segurtasunaren inguruan egin den lanaketa. Segurtasun kulturalaren kontzeptua Aotearoako jendartearen testuinguru kolonialetik sortu zen. Maorien, Zeelanda Berriko jatorrizko herritarren, osasun egoera kaskarra zela eta hauek osasun arretaren aldaketa sakonaren eskaerari erantzuna emateko asmoarekin erizain Maoriek egindako auto ebaluazioaren ondorioa izan zen. Prozesu horren ondorioz, 1992tik aurrera kultura segurtasuna erizaintza eta emaginen formakuntzetan betebeharreko eskakizuna bihurtu zen (Papps eta Ramsden, 1996).

Gaur egun segurtasun kulturalaren kontzeptua osasun arretaren ikuspegi kritikoa bezala garatu da, jatorrizko herriek Kanada, Australia eta Zeelanda Berria bezalako estatu neo-kolonialean eskaintako osasun zerbitzuei begira. Gaitasun kulturala eskaintzen duten beste markoetan ez bezala, segurtasun kulturalaren ikuspegiak kolonizazioaren ondorioz jasandako kalteak eta jatorrizko herriek pairatzen dituzten botere desberdintasunak aitortzen ditu, b aita hauek osasungintzan eduki ditzazketen ondorioak ere (Mackean, et al., 2019).

2. Arloko egoera eta ikerketaren helburuak

Euskal Herriko antolaketa administratiboa dela medio herritarren osasun arreta hiru entitate desberdinek ematen dute. Euskal Autonomi Erkidegoa (EAE) osatzen duten Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan Osakidetza da osasun arretaren hornitzaile publikoa. Nafarroa Garaian Osasunbideak ematen die zerbitzua herritarrei. Nafarroa Behera, Lapurdi eta Zuberoan berriz, herritarrak Frantziako Estatuko osasun sistemaren menpe daude.

Osakidetzak EAEn eta Osasunbideak Nafarroan autonomi maila garrantzitsu batekin herrialde mailan kudeatzen den osasun sistema publikoak dira. Ipar Euskal Herrian, berriz, Parisetik Estatu mailako irizpideen arabera kudeatzen den sistemaren menpe daude. Alde batetik, oinarrizko arreta langile liberatuek eskaintzen dute, eta ospitale publikoak, berriz, Frantziar estatuaren baldintzapean daude.

Egoera horretan, herritar zein osasun langile euskaldunak osasun arreta jasotzeko edota lan egiteko aukera edukitzeko asko aldatzen da eremuaren arabera. Hizkuntz Eskubideen Behatokiaren arabera, EAEn dagokionez osasun-asistentzia euskaraz jasotzeko eskubidea legez aitorturik izateak edota zerbitzu hori euskaraz jaso nahi duela eskatzeak ez du bermatzen osasun-arreta euskaraz jasoko duenik (Behatokia).

Nafarroan ere osasun-asistentzia euskaraz jasotzeko oztupoek kexa ugari sortzen ditu; bai eta eremu publikoan euskaraz aritzeko Euskararen Legeak eskubidea aitortzen duen zonaldean ere. Profesionalen gaitasun linguistikoak berebiziko garrantzia dauka herritarren hizkuntza-hautua bermatzeko eta herritarrei kalitatezko zerbitzua eskaini ahal izateko, baina Osakidetzako hiru langiletik batek du ziurtatuta bere lanpostuari dagokion hizkuntza profila eta Osasunbidean, langile euskaldunen kopurua ez da %0,5era iristen (Behatokia).

Nafarroa Behera, Lapurdi eta Zuberoan, berriz, osasun langileek ez dute inongo hizkuntz eskakizunik euskarari dagokionez. Euskaraz eskaintzen den zerbitzua langileen borondatearen arabera da, eta ez dago inongo babes ofizialik herritarrak euskaraz artatuak edota lan egin ahal izateko. Gauzak horrela, lan hau burutzeko datuak lortzeko garaian ere zailtasun handiagoak izan dira Ipar Euskal Herriko informazioa eskuratzerakoan.

Osasun langile euskaldunen eskasiak lotura zuzena du osasun zientzietako ikasketak euskaraz burutzeko zailtasunekin. Erizaintzaren gradu osoa ikasteko aukera EAEn bakarrik dago gaur egun. Euskara hizkuntza gutxitua izanik, eta hizkuntza politika ahula dela medio, euskaraz matrikulatzen diren ikasle kopurua %60ra ez da iristen batz bestea. Araba eta Gipuzkoako campusetan matrikulazio datuak igo diren bitartean, Bizkaian jaitsi egin dira azken urteetan (EHU euskara errektoreordetzatik jasotako datuak).

2019/2020ko ikasturtean lehenengo aldiz eskaini zuen Nafarroako Unibertsitate Publikoak (NUP) Erizaintzan euskaraz matrikulatzeko aukera. Errealitatean lehenengo urteko hamaika ikasgaietatik hiru bakarrik eskaini ziren euskaraz. 2020/2021 ikasturterako lehenengo kurtsoan hamaika ikasgaietatik bost dira euskaraz eta aurreko urtean euskaraz hasi zirenak ez dute izango erizaintzako ikasgaiarik euskaraz bigarren urtean (Universidad Pública de Navarra (UPNA) - Nafarroako Unibertsitate Publikoa (NUP)).

Ipar Euskal Herriko ikasleek, berriz, ez dute Ipar Euskal Herrian aukerarik erizaintza euskaraz ikasteko. Ikastolako ikasleek EAEn ikastera joatea erabakiko balute ere, Estatuaren arteko unibertsitatean sartu aurreko ikasketen puntuaketa sistemaren desberdintasunak zein gaztelania menperatu behar izateak oztupo nabarmenak sortzen dizkie. Beraz, Ipar Euskal Herriko ikasleentzat erizaintza euskaraz ikasi ahal izateko aukerak are murriztagoak dira (Hik Hasi).

2.1. Helburuak

- 1) Euskal Herriko eremu administratibo desberdinetan erizaintza euskaraz jarduteko dauden hutsuneak eta aukerak aztertzea.
- 2) Etorkizunera begira dauden aukerak identifikatzea eta neurriak proposatzea.
- 3) Euskal Herri mailan erizaintzan kultura gaitasunaren inguruko formakuntzaren inguruko hasierako azterketa orokor bat burutzea.

3. Ikerketaren muina

Euskal Herrian erizainek euskaraz jarduteko eta lan egiteko dituzten oztopo eta aukerak aztertzekeo elkarrizketa sakona erabili da ikerketako metodo gisa. Elkarrizketa erdi egituratua erabili da non aurrez prestaturiko gidoia baliatu den gaietan sakontzeko (Howitt eta Howitt, 2019). Bakoitzaren esperientziatik erizaintza euskaraz jarduteko bizi dituzten oztopoetan, zailtasun hauen erroa aztertzean eta etorkizunera begira ikusten dituzten balizko irtenbideetan sakontzeko xedearekin bideratu dira galdera irekiak.

Elkarrizketak elkarrizketatuen ingurune naturalean egin dira, bakoitzaren etxean eta elkarrizketaren transkripzioa gauzatu. Elkarrizketa transkribatzeko eta informazioa ikerketa burutzeko erabili ahal izateko elkarrizketatutako erizainek baimena sinatu dute. Nahitaezko laginketa erabili da, azterketa egin ahal izateko erizainak euskaldunak izatea, hizkuntza eta kulturaren inguruko kontzientzia edukitzea eta euskal lurralde ezberdinetan banatuak izatea beharrezkoa zelako gaiaren azterketan sakondu ahal izateko. Elkarrizketatutako sei erizainak emakumeak dira 26 urtetik 69 urteko adin tartea dutelarik. Guztiak urteetako esperientzia dute erizaintzan eta eremu desberdinetan aritutakoak dira: Ospitalean, Pediatrian, Larrialdietan, Etxeko Ospitalizazioan, Oinarrizko Arretan eta Erradiologia Interbentzionistan besteak beste. Esperientzia hori eremu publiko zein pribatuan banatu da. Jatorriari dagokionez elkarrizketatutako bi baxe-nafartar, bi nafar, eta bi gipuzkoar daude.

Ikerketan izandako mugarik garrantzitsuena elkarrizketatuen kopurua izan da, hasierako azterketa bat egiteko nahikoa izan daitekeen arren, ondorioak estrapolatzeko elkarrizketa kopurua handiago bat komenigarria izango litzateke.

Hasierako gidoiari jarraituz elkarrizketatuek beren esperientzietatik abiatutako gogoetak partekatu dituzte. Gogoeta hauetatik zazpi ideia nagusi atera dira, behin eta berriz errepikatu direnak. Ideia eta gogoeta horien arabera burutu da beraz analisia.

Elkarrizketetan jasotako informazioa aztertzerakoan gaikako kodeketa erabili da. Transkripzioetan bildutako informaziotik gai zehatzak identifikatu dira datuekin familiarizatzeko, honen ondoren gaien hasierako kodifikazioa egin da. Hasierako kodifikazioa oinarri hartuta, gaien bilaketa bat eman da. Ondoren, maizen agertzen ziren gaien berrikuspina egin da, gaien definizioa eta etiketatzea egin arte. Sailkapen horretan oinarrituz gauzatu da azterketa (Howitt eta Howitt, 2019).

3.1. Euskaraz artatzearen garrantzia

Informazio bilketan behin eta berriz azpimarratu da hizkuntzak duen garrantzia erizainaren lana modu eraginkorrean burutu ahal izateko. Pazientearen hizkuntza jakitea ezinbestekoa da erizaintzat sendatze prozesuan hain beharrezkoa den informazio bilketa zuzena lortzeko. Euskarak eguneroko praktikan pazienteekiko hurbiltasuna eragiten du eta langile erdaldunek askotan lortzen ahal ez duten informazio eta konfiantza lortzen da langile eta pazientearen artean. Pazientearen hizkuntza ez jakiteak paziente zein langilearengan sortzen den ezinegona ere aipatzen da elkarrizketa desberdinetan.

3.2. Botere harremana

Hizkuntza nagusia eta euskararen arteko botere harremana ere nabarmendu den gaia izan da. Euskara bigarren mailako hizkuntza gisa tratatua izateak, eta horren ondorioz euskaldunak, hizkuntzaren erabilera baldintzatzen du. Esanguratsua da botere posiziotan euskaldunak egotea edo ez nola baldintzatzen duen inguruko praktika. Elkarrizketatu guztiek aipatzen dute bizi dugun harreman sistema hierarkikoan gora joan ahala euskararen presentzia gutxitu egiten dela. Medikuek eta erizainen arteko botere posizioaren ondorioz emandako kasuak ere nabarmentzekoak dira. Herritar elebarrak hizkuntza hegemonikoaren erabilera eskusiboa bultzatzeko egiten duten botere posizioaren erabilera orokortua dela ere adierazten da.

3.3. Kultura gaitasuna

Osasun arretan kulturak duen garrantziak ere kezka sortzen du elkarrizketatuen artean. Hizkuntza soilik ikastea ez du balio hizkuntz komunitatearen ohitura eta sinismenak ezagutzen ez badira. Gaixotasun prozesuak baldintzatu dezakeen informazioa galtzeko arrisku handia dago, bertako mundu ikuskera kontutan ez bada hartzen.

3.4. Kontzientzia

Hizkuntzaren gaineko kontzientzia eta hizkuntzaren erabileran ekarri dezakeen motibazioa ere elkarrizketetako ardatzetako bat izan da. Hizkuntza jakiteak, erabiltzeak ala ez duen garrantziak eta ondorioz ohartu gabe, etsipen sententzio orokorra sortzen duela errepikatu den gogoeta izan da. Nolabait, hizkuntza irakastea eta ikastea, lanpostuak lortzeko baldintza gisa jartzea ez da eraginkorra, hizkuntzaren kontzientzia ez badago edo ez bada transmititzen.

3.5. Oztupoak

Erizaintza euskaraz ikasi edota jarduteko oztupoak ugari dira eta maila ezberdinetan ematen dira. Elkarrizketatu guztiek adierazten dute erizaintza euskaraz ikasteko eta jarduteko egunero eta etengabe bizi dituzten oztupo eta erasoak. Erasoak maila guztietan ematen dira, lankideetatik hasita administrazioko eremu guztietara ailegatu arte. Erizain euskaldunei euskaraz ez mintzatzea eskatzen zaie eta egiten dutenean erasoak jasaten dituzte. Gutxietsiak eta bigarren mailakoak direla sentiarazten zaie. Maiz aipatzen dute lankideekin dituzten eztabaidak eta borrokak, baita horrek sortzen duen etsipena eta nekea ere.

Zenbait eremuetan erizaintza ikastea ezinezkoa da eta ikasten ahal den eremuetan ikasketak erdizka egiten dira euskaraz, praktiketako kasuetan adibidez. Honen ondorioz hitz teknikoak eta idatzizko lanetan dituzten arazoak nabarmenak dira.

Administrazioari dagokionez, osasun zentroetatik hasita goi mailako komunikazioetara iritsi arte komunikazioa erdaraz ematen da. Bilerak, parteak, mezu elektronikoak,...erdaraz ematen dira. Administrazioak euskararekiko duen borondate eza ere ideia orokorra da, praktikatzen den herrialdea edozein izanda ere.

3.6. Burujabetza/nazio zapalkuntza

Euskarak bizirauteko edo gure hizkuntzaren iraupena bermatu ahal izateko, gaur egun herri bezala bizi dugun zapalkuntzatik ateratzearen behararen ideia behin baino gehiagotan agertu da elkarrizketetan. Ideia nagusia izanik, Euskal Herria bi estatu zapaltzaileen menpe dagoen bitartean hizkuntzak ere menpekotasunean eta zapalduerik segituko duela da. Ondorioz, hartzen diren beste neurri guztiak bizirauteko eta pitzadurak tapatzeko neurriak besterik ez dira.

3.7. Proposamenak

Etorkizunera begira erizaintza euskaraz ikasi eta praktikatu ahal izateko planteatutako proposamenak ildo desberdinetatik eman dira. Banakako arduretatik hasita erizain bakoitzak bere eremuan ahal duen heinean euskaraz egitea eta bere euskara maila hobetzea proposatzen da. Oinarri sendoak jarritz, erizain bezala saretu eta antolatzearen beharra ere azpimarratu da, Euskal Herri mailako egitura baten babespean. Kontzientzia hartzea eta kultura aldaketaren beharra ere aipatu da, aurrera egiteko baldintza bezala. Administrazioaren aldetik, aldaketa garrantzitsuak egitearen beharra bai eguneroko praktikan eta baita unibertsitatean ikasketak euskaraz burutu ahal izateko ere ezinbestekotzat ematen da.

4. Ondorioak

Euskarak Euskal Herri mailan Osasungintzan eta bereziki erizaintzaren eguneroko praktikan bizi duen egoera islatzen da. Proiektu honetan elkarriketatutako sei erizainen esperientziatik abiatuz Euskal Herri mailako hasierako azterketa bat egin dezakegu. Eredu administratibo ezberdinen banaketak, praktikan ñabardurak izan arren, erizain euskaldun bezala esperientzia komun ugari atzeman daitezke.

Guztiak nabarmentzen dute eguneroko erizaintza modu eraginkorrean praktikatu ahal izateko hizkuntzak duen garrantzia. Komunikazio tresna izatetik aparte pazientearekin konfiantzazko harremana sortzeko beharrezkoa da. Sendatze prozesuaren baitan ere, ezinbesteko garrantzia dauka hizkuntzak. Jatorrizko herrien inguruan egindako ikerketa ugari nabarmentzen dute jatorrizko hizkuntzak mantentzea eta biziberritzea ondorio positiboak dituela jatorrizko herrien osasun fisiko zein kolektiboan (Whalen, et al., 2016). Euskararen kasuan ere esan dezakegu kalitatezko arreta emateko zein emaitza positiboak edukitzeko oinarria dela.

Hizkuntza hegemonikoa eta euskararen arteko botere harremana ere nabarmendu den gaia izan da. Ezin dugu botere harreman honen gaineko azterketa egin gure hizkuntzak pairatzen duen zapalkuntzaren jatorria aztertu gabe. Mendez mende euskarak euskal herrian pairatu duen zapalkuntzak maila ezberdinetan dihardu gaur egun ere. Euskara bigarren mailako hizkuntza gisa tratatua izateak, eta horren ondorioz euskaldunak, hizkuntzaren erabilera baldintzatzen du. Roche nabarmentzen du hizkuntza zapalkuntza, menderakuntza mota bezala, “arrazaz”, nazio, edota etnia zapalkuntzen ildo beretik doala. Ikertzaileek hizkuntza zapalkuntza bortxaketa fisiko, mental, sozial eta izpiritualaren eraginez betearazitako hizkuntza galera bezala definitzen dute (Roche, 2019).

Egoera horretatik abiatuta azaldu daitezke euskaldun eta erdaldunen artean ematen diren botere dinamikak. Erdaldunak posizio hegemonikotik euskaldunei esan ohi digute noiz, nola eta norekin aritzen ahal garen gure hizkuntzan. Euskaldunok berriz, zapalduaren posiziotik agindu horiek betetzen ditugu. Erizainen kasuan medikuak edo erizain arduradunaren agindupean hizkuntza aldatzea eskatzen zaigu gaur egun ere. Elkarriketatu guztiak aipatzen dute bizi dugun harreman sistema hierarkiakoan gora joan ahala euskararen presentzia gutxitu egiten dela. Herritar elebarrak hizkuntza hegemonikoaren erabilera eskusiboa bultzatzeko egiten duten botere posizioaren erabilera orokortua dela ere adierazten da.

Hizkuntza oso tresna eraginkorra da jakintza kulturala transmititzeko eta kulturantzatasuna mantentzeko. Hizkuntza eta kultura elkar lotuta daude, eta batek bestea zehazten ez badu ere, hizkuntza koherentzia kulturalaren adierazlea da (Whalen, et al., 2016). Kultura gaitasuna beraz, ezinbestekoa da osasun arretan hizkuntza gutxituen herritarren osasun arazoak ulertzeko. Elkarriketetan adibide zehatzak ematen dira, non hizkuntzaren inguruko ezjakintasunak kultura ulertzerakoan gaizki ulertuak sortzen diren eta alderantziz. Erizaintzan, zein osasun arloko beste lanetan, pazientearen kontakizunaren ulermena berebizikoa da pazientearen osatze bidean.

Gauzak horrela, nabarmentzekoa da erizaintza ikasketetan edota bestelako ikastaroetan gaitasun kulturalaren formakuntzarik ez egotea. Mundu mailan egindako ikerketetan gomendio gisa jartzen den formakuntza den arren (Cooper eta Powe, 2004). Hezkuntza profesionala

emateko eragile garrantzitsutzat kontutan hartu beharko litzateke unibertsitatea. Galesen ereduari jarraikiz, funtsezkoa izan daiteke hizkuntzaren kontzientziazioan (Roberts, 2016).

Euskal Herriko kasuan, langile erdaldunen egoeraren ulermena hobetzeko eta euskaldunak ahalduntzeko ezinbesteko pausua izango litzateke kultura gaitasunaren formakuntza unibertsitate zein lantokietan txertatzea. Kultura gaitasunaren formakuntza horretan sartu daiteke hainbat elkarrizketetan aipatu den hizkuntzaren kontzientzia. Azkenean, formakuntza integral baten bitartez lortu daitekelakoz maila batean kultura aldaketa hori ematea langile zein herritarren artean. Jauzi kualitatibo bat izango litzateke osasun zerbitzuak herritar guztiak berdintasunean artatzeko bidean. Elkarrizketatuen esperientzien arabera, gaitasun kulturalaren inguruan jasotako formakuntza bakarra migrazioari begira izan da. Euskara eta euskal kultura ikusezina bihurtuz. Garrantzitsua da beraz, kultura gaitasunaren gaia euskaratik eta euskaraz egitea hizkuntza zapalkuntzaren estrategiarekin hausteko. Rochek aztertzen du baita ere nola hizkuntza zapalkuntza ezabatze praktiken bitartez ematen den. Zenbait populazio eta haien hizkuntzak diskurtsiboki ikusezin bihurtzeko moduak aztertzen ditu (Roche, 2019). Jabetu behar gara, ematen ditugun pausuak ematen ditugula, gure lana ikusezina egiteko saiakerak jarraituko dutela.

Ildo horretatik, lan honetan zehar hainbat izan dira euskaldun bezala erizainak ere eguneroko praktikan pairatzen dituzten eraso eta oztupoak. Horrekin lotuta dago, dudarik gabe, aipatutako hizkuntza zapalkuntza eta botere harremanen dinamika.

Hasiera batean lanaren oinarrietako bat izan ez bada ere behin baino gehiagotan azaldu da burujabetza eta nazio zapalkuntzaren auzia. Zalantzan jartzen da beste neurri guztien eraginkortasuna euskaldunok herri bezala burujabe izan arte. Azterketa sakonagoa eskatzen duen gaia izanda ere, osasungintzan zein beste arloetan euskararen normalizazioari buruz hitz egiterakoan kontutan hartu beharreko hausnarketa da.

Etorkizunera begira berriz, burujabetzatik haratago maila desberdinetako planteamenduak egiten dira. Ikuspegi desberdinak ematen dira eta adostasun eza dago modu eta ekintzetan. Proposamen guztiak interesgarriak, zentzuzkoak eta beharrezkoak izan arren, estrategia komun baten faltan zaila izango da etorkizunera begira aurrerapauso esanguratsuak ematea. Agian hasierako pausuak saretze eta antolaketa eraginkorrei begira jarri beharko lirateke.

5. Etorkizunerako planteatzen den norabidea

Etorkizunera begira abiatutako ikerketa lan honen ondorioetan sakontzeko elkarrizketa kopurua handitu eta elkarrizketak Euskal Herriko eremu gehiagotara zabaltzea komenigarria izango litzateke. Ondorio nagusien ildotik jarraikiz osasungintzan euskararen normalizazioa bermatzeko alde batetik erizaintza gradu zein espezializazio ikastaroetan gaitasun kulturalari buruzko derrigorrezko formakuntza proposatuko nuke. Beste aldetik, erizainen arteko nazio mailako saretzea eta elkarlana bultzatzea ezinbestekoa da estrategia eraginkorrek sortu eta bultzatzeko.

6. Erreferentziak

- Behatokia.[kontsulta2020-10-02].Eskuragarri. http://behatokia.eus/core_0.1206/fitxategia_ikusi.php?id=21&karp=1
- Betancourt, J. R., Green, A. R., eta Carrillo, J. E. (2002). *Cultural competence in health care: Emerging frameworks and practical approaches*. New York, NY: Commonwealth Fund, Quality of Care for Underserved Populations.
- Cooper, L. A., eta Powe, N. R. (2004). *Disparities in patient experiences, health care processes, and outcomes: The role of patient-provider racial, ethnic, and language concordance*. New York, NY.: Commonwealth Fund.
- Hik Hasi. [kontsulta2020-10-02]. Eskuragarri. <http://www.hikhasi.eus/Artikuluak/20100601/hautaprobak-baxoa-eta-selektibitatea>
- Howitt, D., eta Howitt, D. (2019). *Introduction to qualitative research methods in psychology putting theory into practice*. Upper Saddle River: Pearson.
- Mackean, T., Fisher, M., Friel, S., eta Baum, F. (2019). A framework to assess cultural safety in Australian public policy. *Health Promotion International*, 35(2), 340-351. doi:10.1093/heapro/daz011
- Montes, A. (2016). Hizkuntza kontzientzia osasungintzan. Unibertsitatearen eta Osakidetzaren ekarpena zein elkarlana kultura-aldaketa prozesuan. *Bat. Soziolinguistika Aldizkaria*. 101, 93-106
- Papps, E., eta Ramsden, I. (1996). Cultural safety in NURSING: The New Zealand Experience. *International Journal for Quality in Health Care*, 8(5), 491-497. doi:10.1093/intqhc/8.5.491
- Roberts, G. (2016). Hizkuntzaren inguruko jardunbide egokiak osasungintzan eta gizarte zerbitzuetan: “eskaintza aktiboaren” printzipioa txertatzea Galeseko testuinguru elebidunean. *Soziolinguistika Aldizkaria*, 4(101), 69-92.
- Roche, G. (2019). Articulating language Oppression: Colonialism, Coloniality and the erasure OF TIBET’S minority languages. *Patterns of Prejudice*, 53(5), 487-514. doi:10.1080/0031322x.2019.1662074
- Universidad Pública de Navarra (UPNA) - Nafarroako Unibersitate Publikoa (NUP). [kontsulta2020-10-02]. Eskuragarri. <https://www.unavarra.es/sites/grados/salud/enfermeria/assignaturas-y-profesorado.html>
- Whalen, D. H., Moss, M., eta Baldwin, D. (2016). Healing through language: Positive physical health effects of indigenous language use. *F1000Research*, 5, 852. doi:10.12688/f1000research.8656.1

7. Eskerrak eta oharrak

Lan hau *Hizkuntzaren Kudeaketa Osasun Arretan: Euskara Komunikazio Klinikoa* graduondokorako egindako proiektuan du jatorria. Horrengatik, eskertu nahi ditut graduondokoa burutu ahal izateko lan egin duten guztiak eta baita bidelagun izan ditudan ikaskideak ere. Bereziki eskertu nahi ditut proiektua eta artikulu hau idaztera animatu eta lagundu didaten Izaskun Elezgarai eta Naroa Anabitarte.